

# EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA - COVER LEHIAKETA 2023

## BALDINTZAK:

1. Ez zaie adin mugarik jarriko parte hartzaileei.
2. Abestia grabatzeko SOINU TXIKI EDO/ETA PANDEROA SOILIK erabili daitezke, bestelako instrumenturik ez da onartuko, ez eta oinarri instrumental elektro-melodikorik ere.
3. Aukeratutako pieza originala, edozein garai edo estilokoa izan daiteke, beti ere, EUSKAL KANTUA izan behar du.
4. Abestiak letrarik balu erabiliko den hizkuntza EUSKARA izango da.
5. Letrak ez baztertzailea izan behar du.
6. Bertsioak inon argitaratu gabea izan behar du.
7. Edozein formatutan sortutako piezak onartuko dira: bakarka, bikoteka edo taldeka. Beti ere, taldekide kopuruak bertsioaren behar melodikoei erantzungo die, ahots bakoitzeko jotzaile bat hobetsiko delarik.
8. Talde bakoitzak nahi adina pieza aurkeztu ditzake. Talde bakoitzeko pieza bat bakarra aukeratuko da diskoaren grabaketarako.
9. Abesti bakoitza bideoz grabatuta aurkeztu behar da, ahalik eta kalitate onenean eta taldeko partaide guztiak zuzenean jotzen azaltzen direla.
10. Estudioko grabaketa, bideoan aurkeztutako instrumentazioarekin eta agertzen diren pertsonekin soilik grabatuko da, bideoan aurkeztu bezala.
11. Estudiorako emandako denbora aurkeztutako jotzaile eta abeslari ezberdinen kopuruaren arabera izango da.
12. Abesti guztien erabilera EHTeren eta kantuen egilearen esku geratuko da.
13. Masterraren jabetza EHTerena da eta lizentziak egin beharko balira edo masterra saldu beharko balitz artistari jakinarazi beharko zaio eta lehendabizi berari eskainiko zaio.

## HAUTAKETA:

Epaimahaia EHTeren zuzendaritzak osatuko du eta bere irizpideen arabera 10 abesti aukeratuko ditu.

## SARIA:

Aurkeztu diren talde guztietatik 10 aukeratuko dira eta horien abestiekin CD bat grabatuko da 2023ko abenduan zehar.

Epaimahaiak hala erabakiz gero grabaketa bertan behera gera daiteke.

## IZEN-EMATEA:

Bideoa [trikitixa@trikitixa.eus](mailto:trikitixa@trikitixa.eus) helbidera bidali behar da **2023ko urriaren 31** baino lehen.

Emitza azaroaren 15ean argitaratuko da [www.trikitixa.eus](http://www.trikitixa.eus) webgunean.